

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2212

251/2018 EBAZPENA, martxoaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Kardiologiako Mediku kategorian lotura estatutarioko izaera lortzeko hautaketa-probetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 111/2018 Ebazpenaren bidez, onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Kardiologiako Mediku kategoriako oinarri espezifikoak.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea. Hori ebazpen honen I. eranskinean jasotako kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoari jarraituz, Ebazpen honen kontra gorako errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.

2018ko apirilaren 25a, asteazkena

I. ERANSKINA

FAK. ESP. KARDIOLOGIAKO MEDIKUA

Presidentea:

- Titularra: Luisa Maria Diez Azurmendi.
- Ordezkoa: Maria Esther Cuesta Garcia.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Angel Antonio de Loma Osorio Montes.
- Ordezkoa: Jose Bautista Martinez Ferrer.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Maria Susana Gomez Varela.
- Ordezkoa: Jose Maria Aguirre Salcedo.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Maria Fe Arcocha Torres.
- Ordezkoa: Virginia Montero Gato.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Laura Quintas Ovejero.
- Ordezkoa: Maria Sonia Velasco Del Castillo.

Bosgarren epaimahaikidea:

- Titularra: Francisco De La Cuesta Arzamendi.
- Ordezkoa: Pedro Maria Montes Orbe.

Seigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Izaskun Obieta Fresnedo.
- Ordezkoa: Javier Andres Novales.

Idazkaria:

- Titularra: Francisco Jose Eleta Ruiz.
- Ordezkoa: Maria Dolores Blanco Pompeyo.